

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5390

AGINDUA, 2015eko abenduaren 10ekoa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2015eko eta 2016ko laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen duen azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua, 2013ko azaroaren 28ko EHAAn argitaratu zen, 227. zenbakian, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Dekretu horretan arautzen dira gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonentzako laguntzak, betiere Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoei dagokienez (horrelakoak finantzaketa publikoaren xede badira).

Dekretuak dioenez, orobat, Osasuneko sailburuaren esku egongo dela laguntzen deialdia egitea. Zehatz esanda, 2.2 artikulua araberak, Osasuneko sailburuaren esku egongo da laguntzen deialdia egitea, honako hauek adieraziko dituen agindua emanez: laguntzak zehazteko aldiak, izapideei (zuzenekoiei zein elektronikoei) buruzko zehaztapenak, eskaerak aurkezteko epea, tokia eta modua, laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak, bai eta horiek emateko baldintzak egiaztatze eskatutako agiriak eta eskaera-eredua ere; hori guztia dekretu honetan jasotako arauak garatuz eta aplikatuz.

2013ko abenduaren 23an Osasuneko sailburuak Agindua hartu zuen. Horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2013ko eta 2014ko diru-laguntzak emateko deialdia egin zuen (2013ko abenduaren 31ko EHAren 248. zka.n argitaratua). Agindu horrek 2013ko uztailearen 1etik hasita eta 2014ko azaroaren 30arte egindako gastuei buruzko diru-laguntzak arautzen zituen.

Bere aldetik, 2015eko urtarrilaren 21ean Osasuneko sailburuak Agindua hartu zuen. Horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2014ko eta 2015eko diru-laguntzak emateko deialdia egin zuen (2015eko urtarrilaren 27ko EHAren 17. zka.n argitaratua). Agindu horrek 2014ko abenduaren 1etik hasita eta 2015eko azaroaren 30arte egindako gastuei buruzko diru-laguntzak arautzen zituen.

Gauzak horrela, orain bidezkoa da 2015 eta 2016ko aldiari dagokion deialdia egitea.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta helburua.

Hauxe da agindu honen xedea: Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketanak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonen bete ditzaten errazteko laguntzen deialdia egitea. Laguntza horiek 2015eko ekitaldian, abenduaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari eta, 2016ko ekitaldian, urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitarteko aldiari dagozkie.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz, eta horien kopurua zazpi milioi ehun eta berrogei mila (7.140.000) eurokoak dira.

2.– Deialdi honetan guztira emango diren laguntzen zenbatekoak ez du diru-izendapen hori gaindituko, edo, baldin eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen ez badira, ez du zenbateko hori eguneratuta sortzen den emaitza gaindituko.

3.– Era berean, deialdi honetan kontsignatuta dagoen, edo eguneratuta dagoen, kreditua amaitzen bada, horri publizitatea ematearren, Osasuneko sailburuordeak dagokion ebazpena hartuko du non adieraziko den kreditua amaitu dela. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Laguntzen pertsona onuradunak.

1.– Gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonak eskatu ahal izango dituzte laguntzak baldin eta betetzen badituzte laguntza horien onuraduna izateko azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako baldintzak (dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira), eta laguntza horien xede den gastua deialdi honetan zehaztutako aldian egin badute. Zehatz esanda, hauxe da gastu hori:

a) Gizarte Segurantzaren pentsiodun gisa aseguraturik daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak.

b) Aurreko atalean aipatutako aseguraturik onuradunak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak badira.

c) Langabezia-egoera legalean dauden eta langabezia-prestaziorik eta diru sarrerak bermatzeko errentarik jasotzen ez duten pertsonak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak badira.

d) Aurreko atalean aipatutako aseguraturik onuradunak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak badira.

e) Estatuko Osasun Sistemako aseguratu edo onuradun ez izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Estatuko Osasun Sistemaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren aplikazio-arloan sartzen badira.

2.– Zehapen administratibo edo penala izateagatik diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten pertsonak ezin izango dute lehiaketan parte hartu jasotako zigorrek ezarritako aldian. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen debeku legalen bat dutenek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatzeak ekarritakoak barne.

3.– Baldin eta pertsona horiek jaso badituzte ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren edo haren entitate autonomiaden eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulera- edo zigor-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu horrek amaituta egon behar du, elkarte horiei diru-laguntza hau esleitzeko edo esleituta dutenei dagokiena ordaintzeko.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzeko 2015eko abenduaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldian eta 2016ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era ordaindu behar izan dituzten zenbatekoak itzuliko zaizkie pertsona onuradunei, betiere finantzaketa publikoa jaso dezaketen tratamendu farmakologikoei, eta efektu eta osagarriei dagokienez.

2.– Halaber, itzuliko zaizkie 2016ko ekitaldiko aldi berberean ordaindu beharko dituzten zenbatekoak, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzearen ondoriozkoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketen produktu dietetikoei dagokienez.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte; hartarako, administrazioan onartutako sinadura elektronikoko sistemen bitartez identifikatuko dira.

2.– Izapidetze elektronikoa honako hauen bidez dago erregulaturik: Zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoen bidez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea; Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bide elektronikoen bidez egin ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren <http://www.euskadi.eus/misgestiones> web-orriaren bidez, hain zuzen ere.

6. artikulua.– Izapidetze erraztua.

1.– Oro har organo kudeatzaileak aurkeztu diren eskabideen eta datuak egiaztatzeko berariazko baimena eman duten eskatzaileen arloan ebazteko behar besteko informazioa badu bai onuradunari buruz, bai laguntzaren xedea den gastuari buruz, izapidetze erraztuaren bidez kudeatu ahal izango dira deialdi honetan araututako laguntzak.

2.– Beraz, honako pertsona hauek jaso ahal izango dute izapidetze erraztua:

a) Gizarte Segurantzaren pentsiodun gisa aseguratuta daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak eta beren onuradunak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz, hurrengo artikuluan araututa dagoena.

b) Langabezia-egoera legalean dauden eta langabezia-prestaziorik eta diru-sarrerak bermatzeko errentarik jasotzen ez duten pertsonak, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz, hurrengo artikuluan araututa dagoena.

c) Estatuko Osasun Sistemako aseguratuta edo onuradun ez izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Estatuko Osasun Sistemaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren aplikazio-arloan sartzen badira.

3.– Egoera horretan dauden pertsonen I. eranskineko eskabide-eredua bete beharko dute. Eskabide horretan, Administrazioari baimena emango zaio eskatzaileak adierazten duen kontuan ordainketa egiteko. Horretarako, lehenago egiaztatu beharko da, batetik, onuraduna nor den, eta bestetik, laguntzaren xedearen gastua egin dela. Eskabidea Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan eskuratu ahal izango da, bai eta Osakidetza zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan ere: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>

7. artikulua.– Ohiko Izapidetzea.

1.– Izapidetze errazturik egiterik ez badago, ohiko izapidetzearen bidez kudeatuko dira deialdi honetan araututako laguntzak, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Honako egoera hauetan ezin da izapidetze errazturik egin:

a) Eskatzaileak Administrazioari baimenik ematen ez badio gastuari buruzko datuak egiaztatzeko.

b) Diru-laguntzaren xedea den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada.

c) Izapidetu beharreko eskabideak agindu honetako hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren pertsonen buruzkoak badira. Pertsona hauek xedapen horretan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar dute.

2.– Kasu horretan, interesdunek, banako osasun-txartelaren bidez edo Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak jasotzeko bidea ematen duen dokumentu identifikatzailearen bidez nortzuk diren egiaztatu ondoren, eskabidea aurkeztuko dute, agindu honetako II. eranskineko eredu behar bezala betez. Eredu horri honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) Onuraduna nor den egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Tratamendu aktiboaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak dakartzana.

c) Erositako produktuak ordaindu izanaren justifikagiriak, non adierazita dauden eskatzaileak dagokion aldiaren erositako produktuak eta egindako ekarpenak, agindutako diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez.

Paperezko euskarrian edo euskarri elektronikoan (PDF formatuan) aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

3.– Eskabide-eredua Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan eskuratu ahal izango da, bai eta Osakidetza zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eta honako egoitza elektroniko honetan ere: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>

8. artikulua.–Eskabideen hutsen zuzenketa.

Diru-laguntzetarako eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkezten, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatutzat joko dela adieraziko zaio. Administrazioak eskabide horiei buruzko berriazko ebazpen bat eman eta jakinarazi beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

9. artikulua.– Izapidetzeko hizkuntza.

Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta hari atxikitako dokumentazioa. Eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, halaber, eskabidetik eratorritako ekintzetan, eta prozedura osoan ere bai, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa dena, 6.1 artikuluan ezartzen den moduan.

10. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Interesdunek nahiko izango dute izapidetze errazturako eskabide bakar bat aurkezten badute, deialdi hau indarrean hasi eta 2016ko abenduaren 10a bitartean, edozein unetan.

2.– Ohiko Izapidetzeari dagokionez, interesdunek gehienez bina eskabide aurkeztu ahal izango dituzte, horietako lehena deialdi hau ondorioak izaten hasten denetik eta 2016ko ekainaren 10a bitartean; eta bigarrena, 2016ko abenduaren 10a bitartean, lehenengoan justifikatu izan ez diren gastuei dagokienez.

3.– Eskabideak Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira, bai eta Osakidetza osasun-zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan ere. Halaber, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez izapidetzeko aukera dago, aipatutako <http://www.osakidetza.euskadi.eus> webguneko egoitza elektronikoko horretan.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpenaren bidez xedatuko da dekretu honetan ezarritako laguntzak pertsona onuradunei aitortzea edota, hala badagokio, ukatzea. Horren berri Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan emango da (www.euskadi.net/egoitza_elektronikoa/iragarki-aula). Halaber, honako egoitza elektronikoko honen «administrazio jarduerak»-«laguntzak» atalean emango da: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>, bai eta Osasun Saileko dagokion lurralde-ordezkaritzan eta osasun-zentroetan ere.

2.– Edozein eratako izapideei jarraiki laguntzak jasoko duen gastua zehaztu eta gero, laguntzak esleitzeko ebazpenak Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak emango ditu 2016ko uztailaren lehenengo hamabostaldian eta 2016ko abenduaren bigarren hamabostaldian; eta emango ditu, 2015eko abenduaren 1etik 2016ko 10era arteko eta 2016ko ekainaren 11tik azaroaren 30era arteko aldietan egindako gastuengatik esleitutako laguntzetarako. Ohiko izapideen arabera aurkeztutako eskabideei dagozkien ebazpenek eskabideetan jasotako eskabideekiko koherentziari eutsi beharko diote.

3.– Aurreko paragrafoan esandakoa aintzat hartuz, izapide-modalitateetan eskabidea 2016ko ekainaren 10a baino geroago aurkeztuko balitz, laguntza-aldi guztian onuradunek izandako benetako gastuei dagokienez, eskabideak esleitzeko ebazpen bakarra emango litzateke 2016ko abenduaren bigarren hamabostaldian.

12. artikulua.– Ordaintzeko modua.

Onuradunei laguntzok ordainduko zaizkie, laguntzak onartzen dituen ebazpena argitaratzen denetik eta bi hilabeteko epean.

13. artikulua.– Errekurtsoak.

Laguntzak baiesteko edo ezesteko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuordeari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan eta epean.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Agindua, zeinen 5.3 artikuluan xedatzen baita deitutako laguntzen prozedura eta esleipena ebazteko beharrezkoa izango dela kreditu egokia edo nahikoa egotea EAeko 2016. urteko aurrekontu orokorretan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arau honetan ezartzen den 18.000 eurotik beherako urteko errentetako diru-sarreraren muga, honako kopuru hauen arabera neurtuko da: 2015eko abenduan egindako gastuei begira, 2014ko ekitaldian likidatutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpenaren likidazio-oinarri orokorraren laukian idatzitako diru-kopuruaren arabera; eta 2016ko ekitaldian egindako gastuei begira, 2015eko ekitaldian likidatutako PFEZren aitorpenaren likidazio-oinarri orokorraren laukian idatzitako diru-kopuruaren arabera.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako pertsonak II. eranskineko ereduak bete beharko dute bere eskabidea izapidetzeko, ohiko izapidetzeari jarraikiz. Horretarako, MUFACEk, MUGEJUK edo ISFASek kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezien titularrak izan beharko dute eta 18.000 eurotik beherako urteko errentetako diru-sarrerak dituzten pentsiodunak (klase pasiboak) ere bai, betiere horien bermatzailea Estatuko Osasun Sistema bada; beren onuradunak ere bete beharko dute eredu hori, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badaude, eta aipatuta badaude zenbait biztanle-talde agindutako mediku-tratamenduetara atxikitzeko bideratutako laguntzak arautzeko azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 2. idatzi-zatietan.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

a) Pentsiodun egoera (Klase pasiboetako edo Erregimen Orokorrekoa) egiaztatzen duten agiri ofizialen kopiak eta MUFACEk, MUGEJUK edo ISFASek kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezietako afiliazioa edo horien onuradun pentsioduna.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

c) PFEZren aitorpenen kopia edo diru-sarrera gutxi izateagatik errenta-aitorpena egin beharrik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Hartzen ari den tratamenduaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak dakartzana.

e) Erositako produktuak ordaindu izanaren frogagiriak, non adierazita dauden eskatzaileak, dagokion aldian, erositako produktuak eta egindako ekarpenak, elektronikoki izapidetu ez diren edo Estatuko Osasun Sistemako langileek agindutako diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez.

3.– Kasu horietan, eskabideak 10. artikuluan aipatutako epean eta tokietan aurkeztuko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusita ez dagoenari aplikatuko zaio: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina; agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

2016ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 10a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2015eko abenduaren 23a, asteazkena

Sarrera Erregistroko zenbakia

I. eranskina

Barra-kodea

2016

IZAPIDETZE
ERRAZTUAEUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDUTAKO TRATAMENDU MEDIKOAK,
FINANTZAKETA PUBLIKOAREN XEDE DIRENAK, BETETZEA ERRAZTEKO LAGUNTZEN
ESKABIDEA

Eskatzailearen datu pertsonalak:

Izena: _____ Tel.:

Abizenak: _____

NAN: OTI kodea: **Ordezkarria*

- Ordezkaritza laguntzaren izapidetzea egiteko baino ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkarriak eskabide hau sinatzea.
- Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkarriak sinatuko du; epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkarriak erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko dute eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

Ordezkariaren izena edota erakundearen izena: _____

Abizenak: _____

NAN: Tel.:

Bankuko datuak (X jarri dagokion aukerari)

1.- Joan den urtean laguntzen onuraduna izan nintzen, eta **orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut**.2.- Osasun Sailari eskatzen diot aurrerantzean nire banku-kontu honetan ordaindu diezazkidala agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak (**derrigorrezkoa da titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia eskabideari gehitzea**):IBAN: Bankua edo Kutxa: Sukurtsala: KD: Kontu-zenbakia:

2015eko abenduaren 23a, asteazkena

Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea

Helbidea: _____ Zk.: _____ Pisua: _____

Posta-kodea: Udalerria: _____

Lurralde historikoa: _____ Herrialdea: _____

Posta elektronikoa: _____

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak

- | |
|---|
| <input type="checkbox"/> Ordezkaritza-egiaztasunaren duen dokumentazioa, beharrezkoa bada.
<input type="checkbox"/> Titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia (bankuko datuak atalean 2. aukera hautatu bada) |
|---|

Baimenak

Deialdi honen erakunde kudeatzaileari baimena ematen diot administrazio eskuduneari egiaztatu edo ziurtatu ditzatela honako datu hauek, bai bide elektronikoak, bai eskura dauden bideak erabiliz:

- Pentsiodun gisa aseguratua den edota aseguratua den onuradunaren egoeri buruzko datuak.
- Diru-sarrerei buruzko datuak (PFEZ aitortpena edo halakorik egin beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria).
- Langabezia-egoera legalari, langabezia-prestaziorik edo diru-sarrerak bermatzeko errentarik ez jasotzeko buruzko datuak.
- Laguntzaren xede den gastua aldizka egiteari buruzko datuak.
- Estatuko Osasun Sistemako aseguruak edo onuradunak ez diren pertsonen kasuan, osasun-asistentzia aitortzeko buruzko datuak (ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua)

Ardurapeko aitortpenak*Bateragarritasun-aitortpenak*

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribatuen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea, helburu bera duena.

EZ BAI Zenbatekoa _____ €. Zein laguntza edo diru-sarrera _____

Beste aitortpen batzuk

Honako hau adierazten dut:

- Ez dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ekintzen didanik.
- Ez daukadala debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak kontuan harturik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez nagoela.
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditudala.
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren datuak.

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakizu zuk ematen dituzun datuak "Betetzeko laguntzak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla. Fitxategi horren helburua azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuan araututako laguntzak kudeatzea da. Dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira.

Fitxategia Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago, eta zuzendaritza horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil daitezke, honako helbide honetan: Donostia kalea 1. Vitoria-Gasteiz 01011.

Emandako datuak ezin zaizkie utzi hirugarren pertsonari edo antolakundeei, eta Osasun Sailak baino ezin izango du erabili pertsona eskatzaileei emandako laguntzen kudeaketa.

_____, 2016ko _____ aren ____ (a).

Sinadura: _____ (eskatzailea) Sinadura: _____ (ordezkaria*)

2015eko abenduaren 23a, asteazkena

Sarrera Erregistroko zenbakia

II. eranskina

Barra-kodea

2016

IZAPIDETZE
OHIKOAEUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDUTAKO TRATAMENDU MEDIKOAK,
FINANTZAKETA PUBLIKOAREN XEDE DIRENAK, BETETZEA ERRAZTEKO LAGUNTZEN
ESKABIDEA

Eskatzailearen datu pertsonalak:

Izena: _____

Tel.:

Abizenak: _____

NAN: OTI kodea: **Ordezkarria*

- Ordezkaritza laguntzaren izapidetze egiteko baino ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkarriak eskabide hau sinatzea.
- Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkarriak sinatuko du, eta epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkarriak erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko dute eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

Ordezkariaren izena edota erakundearen izena: _____

Abizenak: _____

NAN: Tel.:

Bankuko datuak (X jarri dagokion aukerari)

1.- Joan den urtean laguntzen onuraduna izan nintzen, eta **orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut.**2.- Osasun Sailari eskatzen diot aurrerantzean nire banku-kontu honetan ordaindu diezazkidala agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak (**derrigorrezkoa da titularrak eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia eskabideari gehitzea**):IBAN: Bankua edo Kutxa: Sukurtsala: KD: Kontu-zenbakia:

2015eko abenduaren 23a, asteazkena

Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea

Helbidea: _____ Zk.: _____ Pisua: _____

Posta-kodea: Udalerria: _____

Lurralde historikoa: _____ Herrialdea: _____

Posta elektronikoa: _____

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak

- Ordezkarri-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, beharrezkoa bada.
- Titularra eta banku-kontu zenbakia agertzen diren orriaren kopia (bankuko datuak atalean 2. aukera hautatu bada)
- Osasun Zerbitzu Publikoaren errezetak edo tratamendu aktiboaren orria.
- Botikaren jatorrizko tiketak edo jatorrizko faktura.
- (Klase pasiboak bakarrik, MUFACE, ISFAS eta MUGEJUkoak) Klase pasibo-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, EAEko udalerriren batean errolatuta dagoen ziurtagiria, eta 2014 eta 2015eko ekitaldietan likidatutako PFEZren aitortpenaren kopia.

Baimenak

Deialdi honen erakunde kudeatzaileari baimena ematen diot administrazio eskudunean egiaztatu edo ziurtatu ditzatela honako datu hauek, bai bide elektronikoak, bai eskura dauden bideak erabiliz:

- Pentsiodun gisa aseguratuaren edota aseguratuaren onuradunaren egoerei buruzko datuak.
- Diru-sarrerei buruzko datuak (PFEZ aitortpena edo halakorik egin beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria).
- Langabezia-egoera legalari, langabezia-prestaziorik edo diru-sarrerak bermatzeko errentarik ez jasotzeari buruzko datuak.
- Laguntzaren xede den gastua aldizka egiteari buruzko datuak.
- Estatuko Osasun Sistemako aseguratuak edo onuradunak ez diren pertsonen kasuan, osasun-asistentzia aitortzeari buruzko datuak (ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua)

Ardurapeko aitortpenak***Bateragarritasun-aitortpenak***

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea, helburu bera duena.

EZ BAI Zenbatekoa: euro. Zein laguntza edo diru-sarrera:

Beste aitortpen batzuk

Honako hau adierazten dut:

- Ez dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ekintzen didanik.
- Ez daukadala debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak kontuan harturik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez nagoela.
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditudala.
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren datuak.

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakizu zuk ematen dituzun datuak "Betetzeko laguntzak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla. Fitxategi horren helburua azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuan araututako laguntzak kudeatzea da. Dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira.

Fitxategia Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago, eta zuzendaritza horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil daitezke, honako helbide honetan: Donostia kalea 1. Vitoria-Gasteiz 01011.

Emandako datuak ezin zaizkie utzi hirugarren pertsonari edo antolakundeei, eta Osasun Sailak baino ezin izango du erabili pertsona eskatzaileei emandako laguntzen kudeaketa.

_____, 2016ko _____ aren ____ (a).

Sinadura: _____ (eskatzailea) Sinadura: _____ (ordezkaria*)